

Herritarren partaidetza 2010eko Etxebizitza Politikak egiteko prozesuan

MEMORIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

1. Testuingurua 3
2. Helburuak 5
3. Oinarriak 7
4. Prozesuaren ikuspegi orokorra 9
5. Garatutako ekintzak 12
6. Partaidetzaren adierazleak 19
7. Jasotako iritziak eta proposamenak 22
8. Herritarren balorazioa prozesuari buruz 31
9. Partaidetzaren eragina Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailean 34
10. Barne-balorazioa eta etorkizunerako irakaspenak 43

1- Testuingurua




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE


- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailak 2009-2013 legegintzaldirako izan duen lehentasunetako bat **etxebizitza-politikari** arlo publikoaren kudeaketako **gobernu onaren oinarriak aplikatzea** izan da.

- Oinarri horien barruan, **adostasuna, gardentasuna eta partaidetza** gailentzen dira. Horretarako, Sailak hainbat ekimen jarri ditu martxan. Horien artean, **Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala eta Herritarren Partaidetza Prozesua Etxebizitza Politikak egiteko orduan** azpimarratu behar dira lehentasunez. Lehenengoaren, hots, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren helburua agente instituzional edo sozialekin epe ertain eta luzera etxebizitza-politika gidatu behar duten ildo estrategikoak adostea zen, bai eta beharrezko koordinazio instituzionala bermatzea ere. Bigarrenak, aldiz, herritarrekin elkarrekintzan aritzea zuen xede.

Gobernu onaren oinarriak



Etxebizitzako partaidetzaren egitura orokorra



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

2- Helburuak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

- HELBURU OROKORRA: **Euskal herritarren partaidetza sustatzea,** etxebizitzari buruz dituzten **iritziak eta proposamenak ezagutzeko,** Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailea egite aldera.
- HELBURU ZEHATZAK:
  - Herritarrek etxebizitza-politikei buruz duten **iritzia ezagutzea**.
  - **Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailean sar daitezkeen proposamen interesgarriak jasotzea**.
  - **Prozesuan partaidetza**-maila altua lortzea.
  - **Prozesuarekiko poztasun**-maila altua lortzea.
- Prozesuaren irismenari dagokionez, etxebizitza-politikak (Euskadin etxebizitza eskuratzeko erraztasunak edukitzeko zer egin behar den) eta politiken kudeaketa (nola lortzen den bide onera iristea) jorratu dira.

3- Oinarriak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

Prozesua zuzendu duten oinarriak honakoak izan dira:


- **Zentsurarik ez** ⇨ Arau bakarra errespetua da. Edozein iritzi da egokia eta ongietorria.
- Ikuspegi ideologiko guztiak jasotzeko ahalegina.
- Pertsona guztien iritziak eta proposamenak jasotzeko ahalegina.
- **Gizarte Zibilaren protagonismo** argia.
- **Partaidetza-prozesua bere horretan** ⇨ Eztabaidarako gai berriak, elkarrizketatzeko adituak,…proposatzea posible da.
- **Ahalik eta gardentasun gehien**:
  - Informazio etengabea prozesuan zehar.
  - Prozesuaren ebaluazioa eta azken txostena.
  - Zehaztapena Plan Zuzentzailean.

4- Prozesuaren ikuspegi orokorra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

Prozesuko **elementu nagusia** www.etxebide.info webgunean dagoen **online partaidetza-plataforma** izan da, baina proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren beste elementu batzuk ere izan ditu:



Prozesuak honako egutegia eduki du:



apirilak 16

apirilak 16 – ekainak 20

ekainak 20 – uztailak 15

5- Garatutako ekintzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

DISEINUA

- Prozesuaren diseinua:
  - Interneteko euskarri-plataforma prestatzea.
  - Partaidetzako tresna zehatzak diseinatzea: inkestak, foroetako gaiak, eztabaida-taldeen gidoiak,…

KOMUNIKAZIOA

- Herritarrei informazioa hedatzea:
  - Prozesua aurkezteko prentsaurrekoa: 2010/04/16
  - Interneteko komunikabideetan eta gizarte-sareetan iragarkiak sartzea (facebooken profil bat sortzea barne)
  - E-mailingak Etxebiden inskribatutako eskatzaileei eta unibertsitateko gazteei.
  - Informazioa eta link-ak webgune propioetan.
  - Prozesuari buruzko etengabeko informazioa komunikabideei.
- Informazioa bitarteko erakundeetara hedatzea, kide diren taldeak jakinaren gainean jartzeko.

DINAMIZAZIOA

- Prozesuaren etengabeko dinamizazioa.

INKESTAK

- Etxebizitza-politika.
- Etxebizitza adjudikatzeko prozedura.
- Bizilagunik gabeko etxebizitzaren mobilizazioa.
- Etxebizitzaren birgaikuntza eta hiriaren berrikuntza.
- Etxebizitzaren zerbitzu publikoak eta administrazioaren eta herritarren arteko harremana.
- Zergak eta laguntzak.
- Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari buruzko balorazioa.
- Ezarritako partaidetza-prozesuari buruzko inkesta.

FOROAK

- “Etxebizitza duin eta egokirako eskubidearen” kontzeptua zehaztea.
- Nola adjudikatu etxebizitza babestua.
- Etxebizitza nahikodun parke publikoa osatu eta kudeatzeko proposamenak.
- Nola mobilizatu etxebizitza hutsaren stocka.
- Etxebizitza birgaitu eta hiria berritzeari buruzko proposamenak.

- Etxebizitza eskuratzeko erraztasunak izateko zerga-pizgarriak.
- Minusbaliotasunak edo arreta bereziaren beharrizana duten pertsonei etxebizitzarako irisgarritasuna hobetzeko proposamenak.
- Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa eta energia garbiak hobetzea.
- Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua hobetzeko ideiak.
- Azalera-eskubidean lagatako lurzoruen salmenta.

PARTAIDETZA-ELKARRIZKETAK TALDEEN ORDEZKARI EDOTA ADITUEKIN

- Iñaki Arriola, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraioko sailburua.
- Justo Sáez, Kidetza - Guraso Bananduen Euskadiko Federazioa.
- Juan Carlos Sola, Elkartean – Ezintasun Fisikoa duten Pertsonen EAEko Konfederazio Koordinatzailea.
- Mario Yoldi, Etxebide.
- Unai Segura, Cáritas.
- Natalia Díez Caballero, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartea.
- Ignacio Marco Gardoqui, ekonomian aditua den zutabegilea.
- Luis Carlos Delgado, Sestao Berri, Saileko sozietate publikoa.
- Txema Odriozola, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Lurralde Federazioa.

ZURE PROPOSAMENAK

- Etxebizitzaren gaineko proposamenak.
- Prozesuari buruzko proposamenak.

DOKUMENTAZIOA

- Iritzi kualifikatuagoak sortzeko kanpo-azterketak.
- Partaidetza-prozesuari buruzko txostenak.

INKESTAK

- Higiezinen Jabetzako agenteak.
- Legelariak.
- Sustatzaileak eta eraikitzaileak.

TALDE AHULEKIN EDOTA IKT-ETATIK URRUN DAUDENEKIN EZTABAIDATZEKO TALDEAK

- Gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak.
- Hirugarren adineko pertsonak.

PROZESUA EBALUATZEA

- Prozesuan parte hartu duten pertsonen poztasunaren azterketa.
- Prozesuaren zuzendaritzan eta dinamizazioan parte hartu duten pertsonen barne-azterketa.
- Eraginaren azterketa, prozesuan jasotako proposamenak Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailean sartzeari dagokionez.

EMAITZAK GIZARTEARI ITZULTZEA

- Prozesuaren memoriak edo azken txostena egitea.
- Berau hedatzea.


6- Partaidetza-adierazleak





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE


- Beharrezko ñabardurak egin ostean (bide desberdinetatik parte hartu duten pertsonak egon daitezkeelako), **ia 16.000 pertsonak parte hartu dutela kalkula daiteke, zehazki, 15.748,** banaketa honi jarraiki:
  - 14.764 partaide desberdin on-line plataforman.
  - 468 partaidetza Etxebideren webgunearen bidez.
  - 333 jarraitzaile facebook-en.
  - 173 partaide talde adituei egindako inkestetan.
  - 10 partaide eztabaida-taldeetan.
- Partaidetza-eremu desberdinei dagokienez, honako adierazleak ditugu:
  - 5.230 inkesta erantzunda (4.589 plataformaren bidez, 468 Etxebideren webgunean eta 173 talde adituetan).
  - 569 post foroetan.
  - 120 ekarpen, “Zure proposamenak” tartearen bidez.
  - 10 partaide eztabaida-taldeetan.

- Plataformaren bidez inkestetan parte hartu duten pertsonen profila honakoa da:









EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIDE

7- Jasotako iritziak eta proposamenak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

ETXEBIZITZA POLITIKEI BURUZKO IRITZIAK


- Partaideen % 82ren ustez, **Euskal Etxebizitza Politika berriaren helburua etxebizitza erabili/gozatzeko eskubidea bermatzea izan behar da;** % 18ren ustez, aldiz, etxebizitza jabetzan izateko eskubidea da bermatu behar dena.

- **Gehienen iritziz (% 86)** etxebizitza eskuratzeko aukera **exijitu beharreko eskubidea** da eta agintari publikoek **5 eta 10 urteko epean** bermatu beharko lukete (% 69). Exijitu ezin dela dioten gehiengoek, etxebizitzarako eskubidean sinisten duten arren, praktikan hori bermatzea oso zaila dela pentsatzen dute.

- **Etxebizitza babestua apurka-apurka alokairura orientatzeko adostasuna orokorra da (% 86),** eta hori, gehienentzat (% 69), bateragarria da etxebizitzaren sustapen publikoko figuretan "erosteko aukera eskaintzen duen alokairua" sartzearekin.

- Aplikatu beharreko politiken orientazioari dagokionez, **alokairuko BOEen sustapena eta etxebizitza hutsaren mobilizazioa dira lehentasun gehien dutenak** (3,65 eta 3,61eko balorazioa, hurrenez hurren, 4tik). 3tik gorakoak diren arren, eta, ondorioz, partaideen babesa duten arren, balorazio urriena izan duten ekintza-ildoak etxebizitza erosteko laguntzak (3,09) eta etxebizitzaren banakako birgaikuntzarako laguntzak dira. Azken horiek 3,22ko balorazioa dute, hiria birgaitu eta berritzeko prozesuen 3,52ko balorazioaren aldean.

- Partaideen ustez, **administrazioaren 3 mailek** (autonomikoa, forukoa eta udalekoa) **etxebizitzaren gaineko erantzukizuna** dute, baina Eusko Jaurlaritzari eta udalei egozten diete batez ere (4tik 3,70 eta 3,55, hurrenez hurren), eta neurri txikiagoan Foru Aldundiei (3,43).



Etxebizitzaren euskal politikaren lehentasunak (1= ez du lehentasunik; 4= lehentasun handia du)
Alokairuko etxebizitza babestuak eraikitzeko sustapena
3,65
Bizilagunik gabeko etxebizitzaren mobilizazioa
3,61
Minusbaliotasun edo mugikortasun murriztuko egoeratan etxebitzen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak
3,57
Etxebizitza birgaitu eta hiria berritzeko prozesuen garapena
3,52
Etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko laguntzak
3,36
Etxebizitzaren birgaikuntza indibidualerako laguntzak
3,22
Etxebizitza erosteko laguntzak
3,09
1
2
3
4

ETXEBIZITZA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

- Etxebizitzak adjudikatzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko iritziak askotarikoak dira. **Baremazio-sistemaren aukera nagusia** den arren (% 41), erreserbatutako kupodun zozketak ere babes handia du (% 33).

	%
Zailtasun bereziko egoeratan dauden bizikidetza-unitateentzat erreserbatutako kupodun zozketa publikoaren bidez	33,30%
Kuporik gabeko zozketa publikoaren bidez	25,90%
Etxebizitza eskatu duen bizikidetza-unitatearen etxebizitza-beharra ordenatuko duen baremazio-sistemaren bidez	40,70%

- **Baremazio-sisteman lehentasuna izango duten irizpideei** dagokienez, **baloratuena diru-sarrerena da** (2,8, gehieneko 3tik), **Etxebiden inskribatuta egondako antzinatasunaren aldean** (2,2). Lehentasunezko taldeak direla-eta, ez dago alde handirik, baina balorazio handiena lortu dutenak ostatua hartu beharrean daudenak eta minusbaliotasun fisikoren bat dutenak dira.


Baremazio-sisteman lehentasuna izan behar duten irizpideak (1= bat ere ez; 3= altua)
"Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak"
2,8
"Administrazioaren eskutik ostatua hartu behar duten pertsonak"
2,5
"Minusbaliotasun fisikodun pertsonak"
2,5
"Genero-indarkeriaren emakumezko biktimak"
2,4
"Minusbaliotasun psikikodun pertsonak"
2,4
"75 urtetik gorako pertsonak"
2,3
"Gizarte Zerbitzuen ustez beharrizan berezietan dauden pertsonak"
2,3
"Pertsona banandu eta dibortziatuak"
2,2
"Etxebideko inskripzioaren antzinatasuna"
2,2
"5 kide edo gehiagoko bizikidetza-unitateak"
2,1
"Beren kargurako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak"
2,1
"Terrorismoaren biktimak"
2,0
0,0
1,0
2,0
3,0

BIZILAGUNIK GABEKO ETXEBIZITZAREN MOBILIZAZIOA

- Partaideen % 90en ustez, **etxebizitzaren mobilizazioak eragin nabarmena izango du berau eskuratzeko aukerak hobetzeko orduan.** Etxebizitza hutsak egoteko kausa nagusien artean, "etxebizitza hondatu edota ez ordaintzeko beldurra" da nagusia (% 51), nahiz eta % 45en iritziz espekulazioa den egoera horren arrazoi handienetakoa.

- Etxebizitza hutsa mobilizatzeko lehentasunezko estrategia gisa partaideek **bizilagunik gabeko etxebizitzak merkatuan jartzeko pizgarri-sistema** bat hautatu dute (% 63), zerga berriak ezarri beharrean (% 37).

ETXEBIZITZA BIRGAITU ETA HIRIA BERRITZEA

- Partaideen % 85en ustez, **birgaikuntza osoari eman behar zaio lehentasuna, indibidualari beharrean.**

- Halaber, birgaikuntza eta berrikuntzarekin lotutako gainerako alderdiei buruzko adostasun handia dago. Partaideen % 87, adibidez, ados dago birgaikuntza-jarduerak **udalerritik edo eskualdetik** kudeatzearekin, Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin koordinatuta, eta % 89k uste du etxebizitzaren birgaikuntza eta hiriaren berrikuntza **enplegua sustatzeko edo** etxebizitza-arazoekin batera egon ohi diren **beste gizarte-arazo batzuei aurre egiteko jarduera eta programekin lotuta egon behar direla**.

ETXEBIZITZAREN ZERBITZU PUBLIKOAK ETA ADMINISTRAZIOAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANA

- **Ezagutza falta orokorra antzeman da** sektore publikotik etxebizitzan esku hartzen duten **eragile desberdinei** eta horietako bakoitzaren xedeari buruz, bai eta Euskadin etxebizitzaren alorrean dauden **pizgarri** eta laguntzei buruz ere.

- **Udalek** etxebizitza-politikan **protagonismo handiagoa hartu behar dutela** uste dute partaideetako askok (% 90).

ZERGAK ETA LAGUNTZAK

- Partaide gehienek pentsatzen dute **zerga-politikan aldaketa bat ezarri behar dela alokairuko etxebizitza sustatzeko, jabetzakoaren aldean** (% 74) eta **herritar guztiei eragiten dieten zerga-onurak murriztu edota ezabatu behar direla, bitarteko horiek etxebizitza babestua sustatzeko erabil daitezen** (% 62).

- % 42k baino ez du uste etxebizitza erosteagatik PFEZko desgrabazioa ezabatu beharko litzatekeela eta % 79k, aldiz, etxebizitza birgaitzean BEZaren tasa murriztua aplikatu behar dela dio.

ETXEBIDE-ETXEBIZITZAREN EUSKAL ZERBITZUA

- Partaideen % 50ak positiboki baloratzen du arreta eta % 47k emandako informazioa.

- % 80ren ustez, izena emateko inprimakia betetzea erraza da eta % 78k pentsatzen du Etxebideren webgunea erabilgarria izan zaiola. Ildo horretatik, **Etxebidek bere erabiltzaileekin dituen harremanetan IKTen erabilera garatu behar dela diote askok**: % 96k aldizka informazioa jaso nahiko luke mezu elektroniko bidez eta % 98k intereneten aldatu edo ikusi nahiko luke bere espedientea.

- Talde adituek adierazitako iritziak **orokorrean bat datoz** herritarrenekin, nahiz eta kasu batzuetan ez, dela iritziaren orientazioan, dela horren intentsitatean.

- Inkesta egin duten **sustatzaile eta eraikitzaileei** dagokienez, % 67 ados dago BOE Berme eta Konpentsazioko Funtsean oinarrituta egotearekin, familiako errentaren araberako prezio desberdinak egonik, horrela sustatzaileei egindako erosketengatiko diru-sarrera finkoak bermatzen direlarik. Talde honek gehien baloratu dituen politikak irisgarritasuna hobetzeko laguntzak, alokairuko etxebizitza babestuak eraikitzeko sustapena eta etxebitzak birgaitu eta hiria berritzeko prozesuen garapena dira. % 44k baino ez du uste erosteko aukera eskaintzen duen alokairua sartu behar denik etxebizitzaren sustapen publikoko figuren barruan.

- Inkesta egin duten **legelarien** taldeak zail deritzo etxebizitzarako sarbidea agintari publikoei exijitu dakieken herritar-eskubide gisa ezartzeari, batez ere eskubide hori bermatzea praktikan zaila delako. % 80k uste du bizilagunik gabeko etxebizitzak egotearen arrazoi nagusia alokatuz gero berau hondatu edo ez ordaintzeko beldurra dela. Bestalde, lurzoruaren jabetza osoa etxebizitza babestuko azalera-eskubidearen titular direnei saltzeko aukerari dagokionez, iritziak bi zatitan banatzen dira (%50).

- **Higiezinen Jabetzako agenteen** iritziak funtsean bat datoz legegileenarekin.

- Proposamenak honako bitartekoen bidez adierazi dira:
  - "Zure proposamenak" tartea.
  - Foroak.
  - Facebookeko oharrak.
  - Eztabaida-taldeek adierazitako proposamenak.
- Aipatutako proposamenak etxebizitza-politikei (zer egin behar den Euskadin etxebizitza eskuratzeko erraztasunak izateko) eta horien kudeaketari (nola eraman bide onera) buruzkoak izan dira. Ideia gehien sortu duen gaietako bat etxebizitza babestuaren adjudikazioa izan da.
- Logikoa den bezala, proposamen guztiak ez dira berdinak izan; gai berdinari buruzko iritzi kontrajarriak ere egon dira.
- Adierazitako proposamenetako batzuk beste herrialde batzuetako jardunbide onak aipatu dituzte, batez ere Europako Iparraldean, hornidurazko etxebizitzei eta gizarte-sektoreak (kooperatibak) etxebizitza-politikan (eraikuntzan nahiz kudeaketa/administrazioan) duten partaidetzari dagokienez.

8- Herritarren balorazioa prozesuari buruz




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

Prozesuaren gaineko poztasunari buruzko azken inkesta erantzun zuten 623 pertsonen bidez lortutako balorazioak honako adierazleak eskaini ditu:

- Prozesua, orokorrean, **positibo gisa baloratu da** (adierazleen batez bestekoa 2,82 da, 1etik 4rako eskalan, adierazle guztiak batez besteko balioaren -2,5- gainetik daudela). Herritarrek gehien baloratzen dituzten alderdien artean "iritziak adierazteko askatasuna" eta "partaidetza-prozesu honetan eztabaidatu beharreko gai berriei buruzko proposamenak eskaintzeko gaitasuna" aipatu behar dira. Atal desberdinen balorazioari dagokionez, ia uniformea da, "etxebizitzari buruzko dokumentazioa eta aztelanak" pixka bat gainetik dituela.


Prozesuarekiko poztasuna (1= bat ere pozik; 4= oso pozik)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

- Balorazio positibo hau bat dator **partaideek partaidetza-prozesu hauei ematen dieten garrantziarekin:** gehienen ustez (% 85), “era honetako partaidetza-prozesuak aldian behin edo une oro egin behar dira” eta % 15en ustez, aldiz, “ez dauka inolako zentzurik”.

- Aitzitik, **prozesuaren erabilgarritasunari buruzko eszeptizismo handia** ageri da. Ondorio horretara iristeko, partaidetza-prozesu honetan adierazitako iritzi eta proposamenek Plan Zuzentzaile berria eta etxebizitzaren euskal legedi berria idazteko orduan izango duten eraginari buruzko itxaropenak neurtu dira. % 61,5en ustez, “gutxi eragingo dute” edo “ez dute bat ere eragingo” eta % 38,5ek, aldiz, “asko” edo “nahiko” eragingo duela uste du.




9- Partaidetzaren eragina Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailean




- Jarraitutako prozedura honakoa izan da:
  - Jasotako proposamenekin zerrenda bat egitea, bat datozenak edo antzekoak direnak batuz.
  - Gaien arabera antolatzea.
  - Proposamen kontrajarriak badaude, gutxiengoak ezabatzea. Kasu horretan, prozesuan adituak direnen iritziekin ere egiaztatu da.
  - Proposamenak sartzeko aukerak aztertzea, honakoak bereiziz:
    1. Sartu ahal direnak.
    2. Sailaren politiketan sartuta daudenak.
    3. Sartu ezin direnak, legegintzako eskumenak falta direlako (adibidez, alokairuaren araudia) edo beste arrazoi batzuengatik (adibidez, aurrekontu-ezintasuna).
- Aztertu diren 45 herritar-proposamenetatik **30 sartu dira Plan Zuzentzailera.**
- Gainerako 15etik, 8 ez dira sartu, dagoeneko ezarrita zeudelako, eta gainerako 7ak, Sailak horiek garatzeko eskumenik ez duelako edo Etxebizitzaren etorkizuneko Legearen eztabaidan aztertu beharreko proposamenak direlako.

Jasotako proposamenak Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailean sartzearen emaitzak



Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailera sartutako herritar-proposamenak: Banaketa gaika



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZA HANDITZEA, GIZARTE-BEHARRIZAN BERRIETARA EGOKITUZ

1. Etxebizitza babestuaren eskaintza berria alokairura orientatzea.
2. Zaintzapeko etxebizitza-blokeak sortzea.
3. Hornidurazko etxebizitza-blokeak sortzea, lehentasunez alokairurako izango diren arlo komun eta guzti.
4. Lonjak etxebizitza bihurtzea.
5. Etxebizitza hutsak alokairuan jartzea sustatzea, bai penalizazioaren bidez (ohiko etxebizitza ez direnei OHZ igota), bai zerga-pizgarriak eskainiz.
6. Udalerri bakoitzean dauden etxebizitza hutsen errolda egitea, mobilizazioa errazteko.
7. Abal, gordailu edota fidantza bezalako tresnak sortzea, alokairuko eskaintzaren igoera errazteko.
8. Ekimen pribatua alokairuko etxebizitzen eskaintza areagotzeko bitarteko gisa sustatzea.
9. Alokairuko gizarte-etxebizitzak eraiki eta kudeatzeko kooperatibismoko esperientzia europarrak Euskadira hedatzea.

ETXEBIZITZARAKO SARBIDEA ERRAZTEA

10. Etxebizitzako programa publikoetara sartzeko diru-sarreren maila igotzea.

11. Erosteko aukera eskaintzen duen alokairua sustatzea.

12. Sustapen publikoko etxebizitzaren lurralde-proportzionaltasuna hobetzea, babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzak udalerri edo eskualde bakoitzean dagoen eskariari erantzun diezaion.

13. Etxebizitza bat eskuratzeko betekizunak udalerri guztietan berdinak izatea.

14. Eskatzaileek etxebizitza bat eskuratzeko aukera duten eremu geografikoak handitzea, eskualdea eta lantokiaren udalerria bezalako beste inguru batzuk sartuta, etxebizitza publikoko eskaintza gutxiago duten udalerrietako eskatzaileei horiek eskuratzeko aukera gehiago emango dizkieten neurriak barne.

15. Etxebizitza publikoaren indibidualizazioa ahalbidetzea, etxebizitza-eskatzaileen baliabide ekonomikoen arabera.

16. Alokairuak, diru-sarrerekin bat.

17. Etxebizitzen zozketetan, antzinatasunari eta beharrizan sozial eta ekonomikoen mailari lehentasuna ematea.

18. Hipoteka-maileguak lortzeko laguntzak eskaintzea.

ETXEBIZITZAREN KALITATEA HOBETZEA

19. Etxebizitza birgaitzeko laguntzak hobetzea.

20. Udalerri bakoitzean egoera txarrean dauden eraikinen errolda egitea eta erkidegoei horiek birgaitzeko laguntzen berri ematea.

21. Sartzeko moduan ez dauden eraikinen errolda egitea eta erkidegoei sartzeko moduan jartzeko laguntza tekniko eta ekonomikoen berri ematea.

22. Hiriguneak birgaitzeko proiektuetan gizarte-ikuspegia handitzea.

ETXEBITZA ESKATZAILEEI ESKAINITAKO ZERBITZUA ETA KUDEAKETA HOBETZEA

23. Birgaikuntzarako laguntza-espedienteak ebazteko arintasun gehiago.

24. Tramiteak sinplifikatzea, Administrazioak lehendik ere badituen datuak ez eskatuz.

25. Interneteko tramiteak egiteko erraztasunak jartzea.

26. Etxebideren webgunea hobetzea, informazio gehiago emateko.

27. Etxebizitzaren gaineko partaidetza ahalbidetuko duten tresnak herritarren esku jartzea, bereziki hiria berritzeko prozesuetan.

28. Planifikaziorako beharrizanei buruzko azterlanak hobeto erabiltzea.

29. Etxebidetik eskaintzen den informazioa hobetzea, urrats bat gehiago emanez, etxebizitza-eskatzaileei aholkuak ere emateko.

30. Sustapen publikoko etxebizitzetan aldizkako ikuspenak egitea, betekizunak betetzen diren egiaztatzeko, batez ere azalera-eskubidearen eta salmentaren jabeen diru-sarrerei dagokienez.

1. Alokairuetako maizter eta jabeen eskubideak bermatzeko neurriak sortzea.
2. Kide ugariko familientzako zozketa bereiziak egitea, etxebizitza babestua adjudikatzeko.
3. Etxebideri buruzko kudeaketak udalean edo eskualdean egin ahal izatea.
4. Etxebizitza babestuetan iruzur-egoerak salatzeko zerbitzua edo telefono publikoa sortzea.
5. BOE berri guztietan eraginkortasun energetikoko neurriak sartzea.
6. Industria-onura % 15ean mugatzea, sustapen publikoko etxebizitzen eraikuntzan.
7. Babes publikoko etxebizitzak ikuskatzea.
8. Etxebizitzen ikuskapen teknikoaren derrigortasuna ezartzea.

1. Industria-pabilioien erabilera etxebizitza-erabilerara aldatzea.
2. Etxebizitzaren erosketari BEZ supermurriztua aplikatzea (% 4) eta gainerako eskualdaketetan OEZ soilik aplikatzea horien arteko prezio-aldearen gainean, eta ez kopuru osoaren gainean. Hipoteken osaeran zergapetzen duten OEZ eta EJDZk maileguaren balioaren gainean zergapetzea, eta ez ordainketen baturan.
3. BOEn azalera murriztea eta bertan ez sartzea ez aparkalekuak, ez trastelekuak.
4. Alokabideko maizterren arretarako egungo telefonoa aldatzea, Bizkaitik kanpo deitzen dutenek 900 edo 901 hasten den zenbaki batera dei dezaten.
5. BOEn Adjudikaziodunen Defendatzailearen figura sortzea.
6. Familia-unitatearen diru-sarreren % 30 baino gehiago etxebizitzarako ez izateko eskubidea.
7. Hainbat talderentzako kupoak ezartzea (gazteak, bananduak...), kontuan diru-sarrerarik eduki gabe BOE eskuratu ahal izateko.

10- Barne-balorazioa eta etorkizunerako irakaspenak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
ETXEBIDE

BARNE-BALORAZIOA

- Prozesu honen bidez **eskuratutako partaidetza zabaltzat jo daiteke, ia 16.000 pertsonak parte hartu dutela** kontuan hartuta.

- Prozesu honen bitartez, euskal gizarteak **etxebizitzaren gaineko ezagutza ertain-altua duela** eta etxebizitzaren politika publikoa kudeatu eta zehazteak eragiten dituen **zailtasunen berri duela** jakin ahal izan da.

- **Errespetu-maila oso zabala izan da.** Egindako oharren % 1 baino gutxiago ezabatu da irainak edo iritzi xenofobo edota iraingarriak zituelako.

- **Prozesuan** parte hartu duten pertsonek adierazitako poztasunari dagokionez, **gehienak pozik agertu dira** eta **era honetako prozesuekin jarraitzeko nahia azaldu dute.** Aitzitik, **prozesuaren erabilgarritasunari buruzko eszeptizismo argia** dago. Ondorio horretara iristeko, partaidetza-prozesu honetan adierazitako iritzi eta proposamenek Plan Zuzentzaile berria eta etxebizitzaren euskal legedi berria idazteko orduan izango duten eraginari buruzko itxaropenak neurtu dira. **Eszeptizismo hori ulertzekoa da, prozesu honen berritasuna dela eta.**

- **Kalitateari nahiz kantitateari dagokienez proposamen interesgarriak eskuratu dira** eta horietako asko **(30)** Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren 2010-2013 Plan Zuzentzailera **sartu dira**.

ETORKIZUNERAKO IRAKASPENAK

- **Partaidetza ez da erraza**. Gure gizarteari kosta egiten zaio “jendaurrean hitz egitea”, baita interneten ere.
- **Partaidetza sustatzeko gizartearengana hurbildu eta harekin komunikatzea estrategia oso garrantzitsua da.** Baliabide ekonomikoak eta dedikaziokoak kontsumitu daitezkeen arren, guztiz beharrezkoa da.
- **Euskal gizarteak argi eta garbi eskatu du Administrazioak informazio eta gardentasun gehiago eman behar duela,** eta, beraz, era honetako prozesuek denboran jarraitutasuna izan behar dute.
- **Administrazioak gizartearen konfiantza irabazi behar du,** bere lankidetza lortu ahal izateko.

